

Arrasate

P R E S S


1997ko
martxoak 21
356. zenb.



Ostiraletan azokara

IKUSPEGIA: **ANDER ETXEBERRIA** • KULTURA: **VIRGINIA IMAZ**
IRITZIA: **KARMELO URIBARREN** • 30 GALDERATAN: **IGOR ALTUNA**

EZ DAGO KONPARAZIORIK



omu

keramikak

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tfnoa/Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 beheha • Tfnoa: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

Albistegi "kapitalistak"

Arrasate eta aldameneko herriak Euskadi "profunda" delakoan omen daude. Eta hain sakonean aurkitzen dira ezen Iurretako kazetariak itzelezko arazoak omen dituztela kamerak hartu eta honaino heltzeko. Itxura denez, kokaleku hau oztopo gaindiezina



Ander Etxebarria

bilakatzen da hemengo berriak jaso ditzaten. Inguratzen gaituzten mendi altuengatik ez da izango.

ETBko albistegiek herri edo hiri ezberdinetan gertatutakoei emandako denborari begirada bat emanez gero, tarterik gehiena

hiriburuek (kapitalek) eta beraietatik hurbil dauden herriek betetzen dutela nabari da. Hiriburuetan erakunde asko eta

populazio handia kokatzen denez, agian bertan sortuko dira eguneko notizia gehienak. Baina horrek ez du esan nahi hemen jazotakoek minutu batzu merezi ez dutenik, zergak guztiok ordaintzen ditugu eta. Kontua da EAEn hedaturik dagoen mentalitate baten arabera gauza guztiak

hiriburuen inguruan jirabiraka ibili behar direla. Horregatik normalizat ikusten da, adibidez, kultur eta kirol ekipamendu handiak Bilbo, Donostia edo Gasteizen egitea. Eta ez hemen (halakorik bururatu ere!). Hori bai,

egin ostean edo aurretik, eraikuntza horiek probintzia osorako balio dutela esaten da, lurraldeko bizilagun guztien onurarako izango direla. Baina berdina esan

genezake hemen egin ezker.

Zoritxarrez, ezin espero dezakegu desorekak onera egingo duenik azkenaldian informatiboak hartzen ari diren itxura dela eta. Gero eta sarriagotan agertzen dira telebistan munduko edozein lekutan jasotako irudi sentsazionalista eta ikusgarriak. Formula horretan aintzindaria eta eredia La 2-eko gaueko albistegia da, baina poliki poliki ETBkoak ere bide hori hartzen ari dira: bost hankako ahuntz bat jaio dela Extremaduran, kotxe istripu larri bat izan dela Milanen edo lapurreta bat Tokion. Askoz ere errazagoa baita satelitearen bidez munduko mila lekutako irudiak biltzea, automobila hartu eta Mondragoera edo arabar Errioxara joatea baino.

Arrasaten behintzat badakigu defizit honi nola aurre egin. ATBren eskutik albistegi propioak ditugu egunero, eta sentsazionalismotik urrun.

"EAEn hedaturik dagoen mentalitate baten arabera gauza guztiak hiriburuen inguruan jirabiraka ibili behar dira"



ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro, Kaitin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Ailube (Tel.: 79 02 26). **Disainua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Arfola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirre, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/86. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESS-ek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana.



356. zenbaki honetan

1997ko martxoaren 21ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	10/13	Kulturaren txokoa	30/31
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/16	Azoka plaza	32/33
Inkesta.....	7	Asteko gaia	23/25	Ikusi eta entzun	37
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	26/28	Foto zaharra	38

<i>Ikuspegia</i>	
Ander Etxebarria	3
<i>Euren ikuspuntutik</i>	
Karmelo Uribarren	8
<i>Gehigarri berezia</i>	
Udal Aurrekontuak 97	19/22
<i>Hogeita hamar galderetan</i>	
Igor Altuna	30
<i>Asteko gaia</i>	
Azoka: kalean saldu, kalean erosi	23/25



56 postu jartzen dira astero ostiraleko azokan.

21

ostirala

■ ZINEA

Fugitivos encadenados
Alai Zineman 7etan eta 10etan.

■ KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko areto nagusian, arratsaldeko 6.30etan. Partehartzaileak: Banda Txiki, Soka taldea, Saxofon bikotea, Fagot bikotea, Flauta bikotea, Tronboi taldea...

■ MANIFESTAZIOA

Euskal presoak Euskal Herrira lemapean manifestazioa arratsaldeko 7.30etan Seber Altube Plazan. Amnistiaren aldeko Komiteak antolatuta.

■ ANTZERKIA

Oihulari Clown taldearen *Molestias Clownicas* antzez-lana Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Udaleko Emakume Sailak antolatuta.

22

larunbata

■ ZINEA

Space Jam Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Kontzertua arratsaldeko 8etan Arrasateko Gaztetxean. Taldeak: Factor Rhesus, Poesia Violenta, Demencia eta Divagaciones de un demen-te.

■ KONTZERTUA
AMAIA ANTZOKIAN

Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak eta Isabella Blezien pianojoleak kontzertua eskainiko dute Amaia antzokian gaueko 10etan.

23

igandea

■ ZINEA

Space Jam Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Oñati, Udana gaina, Urretxu, Santa Barbara eta Arrasate, gutxira 58 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterrondik.

■ ERRAMU EGUNA

San Juan eta San Franzisko elizetan meza goizeko 11etan. San Andresen 11etan eta 12etan. Uribarrin 11.30etan eta 12.30etan. Santa Teresan 10.30etan eta Santamainan 12etan.

■ DOKE TXAPELKETA

Umeendako, Elkartearen arteko XIII. Doke txapelketa goizeko 11etan Monterronen.

■ KORRIKAREN BUKAERA
BILBON

Korrikaren bukaera Bilbon izango da eta Arrasatetik autobusa antolatu da. Irteera goizeko 9.30etan Iturbidetik.

■ XABIER BARO
GAZTETXEAN

Xabier Baró-ren kontzertua Gaztetxean arratsaldeko 7etan.

24

astelehena

■ ZINEA

Space Jam Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ MEZA

Penitentzia komunitarioa Uribarriko elizan 8etan.

■ ODOL EMATEA

Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8etara.


Arrasate edo inguruan, 10.000tik 15.000 metrora arteko lurzoru industrialia erosiko nuke.

Tel. 989-58 70 24

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

**PUB
HAIZEA**



Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

25 asteartea

■ ZINEA

Space Jam Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ MEZA

Penitentzia komunitarioa. Uribarrin 8etan, Santa Teresan 7.30etan eta Santamainan 7etan.

■ ODOL EMATEA

Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

■ BATZAR OROKORRA

Ekin Elkartearen Batzar orokorra arratsaldeko 7etan AEDko lokalean.

27 osteguna

■ OSTEGUN SANTUA

Mezak: San Jaun, San Andres eta Santamainan arratsaldeko 6etan. San Frantzisko eta Santa Teresan 7etan eta Urribarrin 8etan.

■ AUTODEFENTSA IKASTAROA

Emakumeei zuzenduta. Apirilaren 8tik 24ra arte, Udaleko Emakume Sailak antolatuta. Ikastaroaren emalea: Maite Monroy. Izenematea 79 41 39 zenbakian egin daiteke.

■ IKASTAROAK


Famili eta Gizarte Hezketarako Zentroak hainbat ikastaro antolatu du apiriletik aurrera emateko. Goizeko 9.30etan autokontrol eta dantza ikastaroak emango dira. Arratsaldeko 6.30etan: tapiza eta makramea, enkuadernazioa eta bolilloak. Aipatutakoaz gain, bai goizean eta baita arratsaldean ere sukaldaritza praktikoko ikastaroa emango da mikrouhinak eta express lapikoa modalitatean. Izena emateko Famili eta Gizarte Zentrora zuzendu edo 79 04 59 zenbakira deitu.

■ OSTIRAL SANTUA

Martxoaren 28an, Ostiral Santuan goizeko 8etan Gurutz bidea Portaloitik Santa Barbara-

ra. 11etan Gurutz bidea Uribarri eta Santamainan. 12etan Santa Teresan. Bestalde goizeko 11etan aitortzak San Juan Bautista Parrokian. Jesusen heriotzaren

ospakizunak arratsaldeko 5etan izango dira San Juan Bautista, Uribarri, Santa Teresa, Santamaina eta San Andresko elize-tan. Arratsaldeko 6etan San Frantzisko elizan.



■ ASTE SANTUAN BESAIDEREKIN

Besaideko gazte ekintza taldeak apirilaren batetik 4ra arte euskal Pirineora mendi irteera antolatu du, 14 urtetik 18 urtera arteko gazteentzat. Izenematea Besaideren egoitzan egin behar da martxoaren 24an edo 25ean arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara. Prezioa 3.500 pta.

**LARRINETXE
TABERNA**
Udala auzoa
79 22 15

Aste Santuan irekiko dugu!



TOMAS ARRAINDEGIA

GOIZEZ ETA
ARRATSALDEZ
ZABALIK!

Olarte, 3 • ARRASATE • Tel.: 77 16 79

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 21**
• Gaez: Ruiz, Maala.
- Larunbata 22**
• Gaez: Morales, San Andres.
- Igandea 23**
• Gaez: Azkoaga, Ferrerías.
- Astelehena 24**
• Gaez: Español, Iturriotz.
- Asteartea 25**
• Corcuera, Musakola.
- Asteazkena 26**
• Gaez: Irizar, Erguin.
- Osteguna 27**
• Gaez: Azkoaga, Ferrerías.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igualarioria . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
. . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udalizaingoa**
Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
. . . 79 78 44
. . . 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak . . . 79 12 22
PESA. . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**
Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

EROSKIKOEI

Eroskiko bezero beterano-
etarikoa izango naiz, ziur
aski, umetan San Josepen ero-
si nuen, gaztetxo nintzela
Eroslen, ezkondu nintzanean
Uriben eta Maxian gero, eta
orain Hiperrean noski.

Bezero eta bazkide ere
izan naiz, ehuneko bosteko
beherapena lortzeko txartel-
txoa hasiera-hasieratik izan
dut. Noizbait eskatu izan dida-
te ordaintzeko orduan hileroko
ordainketa-agiria, baina
oso gutxitan, gaizki hezita
nengoen nonbait, zeren eta
hilabete honen 10etik aurre-
ra derrigorrezkoa baita paper-
txo hau aurkeztea ere ordain-
keta egiten den momentuan,
bazkide txartela, Eroskiko
txartela, Travel txartela eta
NAN arekin batera. Eta nik
honen berri ez nuen ez eraba-
ki duze ni zigortzea eta ego-
kitzen zitzaidan beherapena
ez egitea, ea ikasten dudan.

Karta hau ez da errekla-
mazio bat, argi utzi baitida-
zue alperrikakoa litzatekeela
errekamatzea, ezinezkoa bai-
ta ezer lortzea bide horreta-
tik, beraz etsita nago.

Hala ere, gehiegikeria eta
injustizia dela iruditzen zai-
dala adierazi nahi dizuet, arau
hori hileroko kuota ordaindu
gabe deskontua lortu nahi
dutenak harrapatzeko bada,
esango nizueke beste erre-
medioren bat aurkitzea zeneu-
katela. Gaur egun Eroskik
honelako huskeriei bestelako
erantzunik eman diezaiekeela
iruditzen zait. Errugabeek
errudunegatik ordaindu behar
al dugu?

Beste arrazoi bat ere badut

zapuztuta egoteko, kutxara
astero-astero gerturazten nai-
zen bakoitzean beldurrez joa-
ten naiz, ea txartel guztiak ote
ditudan; kutxazain desberdi-
na beti, alferrik izan "bizi
guztiko bezeroa" arazoren bat
izanez gero, Ipar Aldeko Hipe-
rretako aurpegi intrantsigen-
te berberak; ez omen gaituz-
te ezagutzen, eta ezezagune-
kin hobe ez fidatzea.

Alferrik frogatu dut nire
hileroko kuota zintzo ordain-
du dudala, "papelitoa" gai-
nean ez eraman arren galdu
dut nire dirua.

Besterik gabe, agur.

Aitor Usobiaga

JOSE MARI LASAGABASTER: SOLIDARIOA

Union Cerrajeran zebile-
neko Jose Mari gogoratu z

Gerra Zibilaren ostean,
erakunde sindikal garaituek
klandestinitatean jardun behar
izan zuten.

Jose Marik gerra garaian
urtebetez (1937tik 1938ra)
Cerrajeran egin zuen lan eta
1948an berriz ere itzuli egin
zen.

Jose Mari Euskal Langi-
leen Sindikatua (Solidarioak)
bultzatu zuenetako bat izan
zen. Sindikatu honek, beste bat-
zuen antzera, klandestinitate-
an egin zuen lan. 1960an Enla-
zeak eta Juradoak aukeratze-
ko hauteskundeak egin behar
zirela eta, irailaren 28an hau-
teskunde horietan parte hart-
zea erabaki zuten. Horrela
bada, Jose Mariz gain (Kua-
lifikatuen Taldetik), Ez Kua-
lifikatuen Taldetik 6 solidario

gehiago sartzea lortu zuten.

Añibaroren (zuzendari-
tzako ordezkaria) eta Jose
Mariren arteko liskar edo
enfrentamendu dialektikoek,
soldatak ordaintzeko sistema
berriaren aurkako 2. orduko
geldialdiaren amaitu zuten. Gel-
dialdi hori, 1961ko ekainaren
10ean egin zen eta 1962ko
Maiatzeko Grebaren sarrera
edo aurrekina izan zen.

Patronalak, produktibi-
tatea handitzeko Bedaux sis-
tema ezartzeko asmoa zue-
nez, Juradoek hitzarmena
sinatzea nahi zuten, baina
horiek uko egin zioten sina-
tzeari. Maiatzaren 17an, arra-
tsaldez, lanean geldialdi bat
egin zen, langile gehien
parte hartzearekin. Orduan,
enpresak lantegia ixtearekin
erantzun zuten.

Jose Mari Atxilotu egin
zuten eta grebalariekin kontratu
guztiak deuseztu zituzten.
Langileak Sindikatu berti-
kalean eta mendian bilerak
egiten hasi ziren. Grebak
ekainaren 1era arte iraun
zuen, baina langileak garai-
tuak izan ziren.

Solidario guztiei auto-
matikoki kendu zizkien
Enpresa Jurado karguak. Gai-
nerakoek sinatu egin zuten
hitzarmena. Jose Marik aska-
tasuna lortu ondoren ez zuen
Cerrajeran lan egiten jarraitu.
Baina borrokan jarraitu
zuen.

Solidario gisa, 1966ko
Erreferendum Frankistaren
aurkako kanpainan parte har-
tu zuten, baina 2 urte geroa-
go atzerriratu beharra izan
zuten.

Juan Ramon Garai

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa.
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

Telebista larregi ikusten duzu?



Jon Murgiondo
18 urte
(Ikaslea)

Ez, gutxi. Pare bat ordu inguru ikusiko dut egunero, nahikoa da.



Catalina Gonzalez
72 urte
(Jubilatua)

Bai. Nik batzutan asko ikusten dut, beste batzuetan ez. Arratsalde, gauez... berdin zait.



Ines Jauregi
67 urte
(Jubilatua)

Ez, neu bakarrik nago eta. Iluntzetan ikusten dut generalean, 9etatik aurrera.




Enrike Delgado
56 urte
(Pentsioduna)

Bai, dezente. Nik gehienbat gauez ikusten dut. Batzutan bi ordu, lau, sei... Etxean hiru gaude eta bakoitzak daukagu geure telebista, beraz mandoarekin ez dago arazorik.



Josefa Delgado
75 urte
(Jubilatua)

Beno, apur bat, gogoia dudanean bakarrik. Eguerdian eguraldi txarra bada ikusten dut, bestela pasiora; gauez, afalostean jarri eta telebista ikusi edo liburuak irakurtzen ditut.



Eneko Bergara
40 urte
(Langilea)

Etxean asko ikusten da, baina nik ahalik eta gutxien ikusten dut autoterapia gisa.



Amaia Redondo
18 urte
(Ikaslea)

Ez, asko ez, gauez bakarrik, denbora librea daukadanean eta eguerdiren baten. Urruneko agintea? hartzen duenak erabiltzen du.



Juan Carlos Cantalapiedra
27 urte
(Langilea)

Bai, beno, normal. Nik neuk ordu pare batez edo ikusten dut.

REPLAY
MADE IN ITALY

MAZA

B O Y S

ERDIKO KALE, 42 • TEL.: 79 14 53 • ARRASATE

SOVIET
URBANTRIBE
Levi's
GUESS

USTEAK USTE

Takarradan Korrikan

Agujeta txiki batzuk badauzkat oraindik, astelehenean Roneo paretik etxe honetara arteko tartea takarradan egin nuelako, Korrikarekin eta ehundaka lagunekin batera. Gustora etorri nintzen, bero bero eginda eta izerditan baina batere neke barik. Agujetena, ohitura falta, besterik ez.

Euskararen aldeko ei den ekitaldira, esan bezala, ehundaka lagun bildu ginen. Takarradan etorri ginen arteko batzuk, takarradan bai, baina antza denez ez jakin zergatik eta zertarako. Bestela, ezin diot beste azalpenik aurkitu euskararen aldeko Korrikan euskaradun zenbaitek Cervantesen hizkuntza ezpaineratzeari, edo *Españaratzeari* esan beharko nuke?

Gorago aitortu moduan, gustora takarradan, jendez inguratuta egoteak sortzen duen anonimatoan babestuta. Euskara bera ere, babestuta sentittu nuen ordulaurdeneko saiotoxo horretan; bai korrikalari gehienengandik, baita espaloietan eta bide ertzean txaloka zeudenen aldetik ere. Ez al da bakarrik momentuko berotasunaren babes sentimendua izango!

Beñardo Kortabarría



Jose Mari Lasagabaster "Wentzes" gogoan

Karmelo Uribarren

Aurreko domekan, goxaldien, fan jakun Jose Mari. Zeinek ez dau ezaugu Jose Mari?. Kalien ibiltzen zan politto politto kaxabie lagun eukela, hara eta hona, batekin oin besteaikin gero. Lagunak bisitetan faten zan: Rikardo, Felix, Kaino, Aitor... eta beste batzuk. Faltan botako daue haren bisittie eta goguen eukiko daue betiko.

Argazkizalea zan eta argazki munduko profesionala be izan zan: lehenengo Foto Jose Mari, gero Laso argazki dendie. Gaztetan, fotografo edo argazkilari ibili zan. Makina bat erretratu atera euen, zenbat mondrauetar agerketan dan? Ikusi barik ezin sinistu. 50.eko hamarkadan San Juanetan ataratako argazki mordue itxi dosku.

Mendizalietan be bazan: Besaide mendizale elkarteak sortu euenetako bat izan zan; domekero faten zien mendire, oporretan Euskal Herrikan kanpora, ahal euenien edozein lekutara, eta beti umore onien, berak esan letxe, beti parrandan eta parrandan. Kontu asko euen kontetako, eta bizimoduak halaxe erakutsitte, makina bat gauzaren protagonista izan zan, beti erretratu makiñie eskuen eukela. Ikusi eta leiru baino

“Entzun Jose Mari, ez daukou bihotza triste Jose Mari, pozik gauz ezautu zindugulako”

ez dau iazko San Juanetan Arrasate Press-ek argitaratu zittuenak. Han egongo die betiko.

Zazpi urte edo emun zittuen Baionan, herritik kanpora, eta han ezautu zittuen hango euskaldunek, Mondrauetik hara fan zien erre-fuxiatuek... Monzon, Xarriton, Txomin eta beste hainbat ezautu zittuen Baionan... Zer horretan jarraitu dau Jose Mari, abertzale beti.

AEDko bazkidie, Argia-ko harpidedune urtietan... Arrasate Press-eko informatzailea foto zaharreko kontuetan. Foto zahar asko eta asko ekarri ditu, berak ateratakie gehienak. Udal irratikoekin be hartu-emonu euen. Beti prest lagunketako...

“Entzun Jose Mari, ez daukou bihotza triste Jose Mari, pozik gauz ezautu zindugulako. Gustora egiten guntzen berba alkarri; argazkizaleak gitzen, kamarak die-la eta ez die-la, erretratuek, zelan ibiltzen zitzen erretratuek ataraten, argazkiak errebeletan... Zenbat gauza goguen, Jose Mari!

Oin lasai eta bakean hartuko dozu atsedean. Agur eta ohore lagun apala eta jatorra izan zitzelako. Mila esker, Jose Mari! erretratuen bidez argia ikusten erakutsi doskuzu eta. Gero arte, sarri arte! Jose Mari.

Karmelo Uribarren
ASA argazkilari taldeko partaidea da.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 79 22 55 79 14 25



HAURTXOIA

Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

astea bi hitzetan

■ J.M. Lasagabaster hil

Joan den iganden J.M. Lasagabaster arrasatearra hil zen, bihotzekoak eman eta hamaregunez larri egon ostean. "Bentxes"

ezizenez ezaguna zen arrasatearra 77 urterekin hil zen.

Argazkiak ateratzeko zaletasun handia zuelako, eta sindikalismoan nahiz politikagintzan ibili zelako izan zen ezaguna "Bentxes".

■ Aurrekontuak onartu

Ez zen ezustekorik izan eta HBren, EAJren, PSE-EEren eta EAren aldeko botoekin onartu egin ziren 97ko aurrekontuak. EBak aurka bozkatu zuen, eta PPko zinegotzia ez zen plenora joan. HBk eta EBk jarritako emendakinei dagokienez, bakar

bat ere ez zen onartu.

Plenoaren bukaeran EBko zinegotziak adierazi zuten onartzen ziren aurrekontuak hirukoak finkatutakoak zirela, eta horrek erakusten zuela Udalak egoera atipikoa bizi duela. HBko zinegotziak, berriz, egoera atipikoarena ukazina zela baina aurrekontuak guztien artean egin dituztenez alde bozkatu zutela esan zuen.

■ Emakumeen mozioa onartu ez

EAJk, PSE-EEK eta EAK aurka bozkatu zuten, ez zen onartu emakume taldeek aurkeztutako mozioa. Martxoaren 8ko manifestazioan gertatutako istiluen gatik jarritako mozioak, HBren eta EBaren aldeko botoak jaso zituen bakarrik. Isabel Gallastegik esan zuenez, tamalgarria izan zen

gertatutakoa baina Ertzaintza ez da errudun bakarra. EAKo zinegotziaren arabera, identifikatuz gero aurrera jarraitzen uzten dute ertzainek. Emakume taldeetako kideek, 18 urtetan ez dela arazorik izan eta identifikazioarena ez zela arazo izan erantzun zioten.

Pleno aretora hurbildutako arrasatear batzuk, bestalde, martxoaren 7an Ertzaintzak izan zuen "jarraerarepresioa" salatu zuten.

■ AEDren batzarra

Asteartean urteko batzar orokorra egin zuen AED elkar-teak. Iaz egindako ekintzei dagokienez, Euskalanan jaitza azpimarratu zuten. Aurrera begira, euskaldun berriendako ekintza batzuk antolatuko dituzte, eta horretarako euskalgiekin harremanetan jarri dira.

“ Desberdintasuna ikusten dut herri telebistaren eta beste guztien artean. Arrasate Telebistan jende gutxi garelako, baliabideak urriak direlako, sistema ezberdina delako eta herri telebista bat delako, azken finean, denetarik egin behar dugu. Beste telebistetan lana finkaturik daukazu: hortik at gauza gutxi egin dezakezu, beste batzuk daudelako lan horiek egiteko.

Dena den, denak telebistak dira. Beraz, kamera aurrean jarri eta zure lana ahalik eta ondoan egin behar duzu, batean zein bestean.

(...) Arrasate Press eta ATB betirako harrobi izango dira. Proiektu sendoa izateaz gain, beste telebista eta aldizkari askoren eredu dira. Izan ere, herriko komunikabide zaharrenetakoak baitira. Gero eta gauza berri gehiago egiten dira. Kazetaritza inon ikasten bada, bertan ikasten da.

Maidar Egues,
Argia
1997-3-16



BAZAINGO LANGILEEN PROTESTA

Ostiraleko plenoan mozioa aurkeztea galerazi zitzaizela eta, Bazaingo langileak eta horiek ordezkatzeko dituzten sindikatuetakoa kideak plenora joan ziren. Euren desadostasuna azaldu ostean, protesta modura zinegotziak zeuden tokira igo eta bertan geratu ziren une luze batez.


Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

Jaiotzak

- Ainhoa Gonzalez Villar. Otsailaren 27an.
- Danel Ortubay Mondragon. Martxoaren 4an.
- Oier Arana Pagalday. 7an.
- Marta Garcia Jurado. 7an.
- Julen Cucalon Telletxea. 8an.
- Nerea Barriocanal Mongelos. 9an.

Ezkontzak

- Eneko Agirre Bengoa eta Ana Belen San Martin Azofra. Martxoaren 8an. Zibilez.

Hildakoak

- Juan Hernandez Lopez. Martxoaren 5ean. 69 urte.
- Esperanza Garai Albistegi. 6an. 92 urte.
- Antonio Lopez Palacios. 10ean. 66 urte.
- Ramon Trenado Gallardo. 11n. 39 urte.
- Jaime Bengoa Aguallo. 14an. 60 urte.

San Juan Parrokia itxi egingo da barrukoa konpontzen hasteko

Martxoaren 31n azken meza eman, eta San Juan Parrokiak atek itxiko ditu segituan barruko obrekin hasteko. Barruko zaharberritze lanek urbete inguru iraungo dutenez, datorren urteko Aste Santuak arte parrokia itxita egongo da.

Barruko konponketa lanak lehenago hasiko zirela uste bazen ere, baimenak berandu heldu eta obra atzeratu egin behar izan da. Astean, esaterako, Diputazioaren baimena iritsi da eta behin hori edukita eliza hustu eta barrukoa konpontzen hasiko dira.

J.M. Astigarragak esan bezala, guztia berrituko denez erabat aldatuko da parrokiaren barruko itxura ere. Orokorrean esanda korua aldatu eta aldame-neko koruak kenduko dira, paretak garbitu eta harria utziko da, aldarean arkoak aterako dira, eta lur azpitik berogailua joango denez lurra harrizkoa izan-



Urtebetez ez da mezarik emango San Juan Parrokian.

go da. Horrez gain, erretaulak eta organoa konpontzera eramango dira.

Barruko obrak egitea 180 milioi inguru kostako da, eta

behin hori eginda, Iturriotzera begira dagoen zatia eta sarre-rako atea konpontzea faltako da. 97 aurrekontuetan 25 milioi zuzendu dira parrokiarako.

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • *ARETXABALETA*

Tel.: (943) 79 24 58




AMI OINETAKOAK

oinetakoen autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

Herriko hirugarren supermerkatu handia zabalduko da laster

Obrak hasita daudenez, esan daiteke Continente sareko DIA supermerkatu berriaren atek laster zabalduko direla, obra bukatzeko bi hilabeteko epea dute eta. Obrak amaitzen direnean, Aretxabaletako muga ondoan eraikuntza berri bat ikusi ahal izango da: 967 metro karratu elikagaiak eta etxerako tresneria saltzeko. Horretaz gain, partikularren batek horrela nahiko balu, arraindegia, harategia eta urdaitegia jartzeko aukera ere bada. Eraikuntzaren kanpoaldean, berriz, 57 autoendako tokia. Supermerkatu berriaren eraikuntza lanek denetara 43.250.000 pezeta inguruko aurrekontua izango dute: urbanizazioan



Aretxabaletarako bidean ari dira eraikitzen supermerkatu berria.

10.400.000, eraikinean 25.350.000, eta instalakuntzetan 7.490.000 pezeta. Lanak hasi aurretik, Meca atzealdean zegoen eraikun-

tza eta hantxe bertan zegoen autoen engraserako eta autoen garbiketarako beste lokal bat bota behar izan dituzte.

Merkataritzan saturazioa?

Eroski lehena, BM gero. DIA orain, eta gutxira alemaniarrek hemendirira. Erosketetarako lau gune handi Arrasaten. Gehitxo? Merkatuaren legea ei da.

Erraldoien garaiari bizi gara. Ez da bakarrik Arrasateko kasua, eta ez bakarrik janari dendena ere. Begiratu hiriburueta: liburu dendandiak, kirol denda erraldoiak, mundu osoko diskoak denda bakar batean. ...Makroak agintzen du, mikroak etorkizunik ez du.

Kanpoko erraldoiaren aurrean, babesa eskatu izan zaio Udalari. Badu Udalak multinazionalen aurrean zer egiterik? Ezetzean nago, baina balu, egin beharko luke.

B. Kortabarria



ARGI PLASTIC



- PVC eta aluminioan egindako leihoak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean.
- Zerbitzu profesionalena.

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!

Tailerra eta bulegoa: Zigorrola, 1-8 pabiloia • Tel.: 77 11 30 • ARRASATE

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik
handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!



LORAMENDI

*Ongi etorri
udaberrira!*





Asteazkenean bilera izan zuten Arrasateko emakume taldeek Emakunderekin.

Mondragon Unibertsitateak Jaurlaritzaren baiezkoa du

Jaurlaritzak asteartean egin zuen gobernu bileran baiezkoa eman zitzaion Mondragon Unibertsitateak proiektuari. Orain, Legebiltzarrean eztabaidatu eta bozkatuko da Mondragon Unibertsitateak proiektua, baina ezustekorik ez dela izango eta alderdi guztiek proiektuari baiezkoa emango diotela uste da. Era horretan, kooperatiba izaera izango duen lehen unibertsitatea irailean lanean hasteko moduan egongo da.

Gaur egun, Deba Garaian ikasketa unibertsitarioak eskaintzen dituzten hiru zentroetan 1.800 ikasle inguru ari dira ikasten, baina irailetik aurrera kopuru horrek gora egingo du. Hala ere, ez dira 5.000 matrikula baino gehiago egingo. Era berean, gelatako masifikazioa saihesten ahaleginduko dira, eta horregatik, gela bakoitzean ez dira 20 ikasle baino gehiago egongo.

Emakunderen iritziaren zain emakume taldeak

Emakundeko ordezkariekin bilera izan zuten asteazkenean emakume kontseiluan dauden taldeetako ordezkariak. Martxoaren 8ko manifestazioan gertatutako istiluen inguruan Emakundek zein iritzi duen jakiteko egin zen batzarrak, eta azalpenak entzun ostean neurriak kanpokoa iruditu ei zitzaion Emakunderi Ertzaintzaren jarrera. Maite

Barreña, Udaleko teknikariaren arabera, Emakunden esan zieten Ertzaintzak egindako kargak eta atxiloketa lekuz kanpo egon zirela, eta horrelako egoeratan hitzegitea eta akordio batera heltzea izango litzatekeela egokiena.

Hala ere, Emakundek oraindik ez du Martxoaren 8an jazotakoei buruzko azken iritzirik eman. Orain, Herri-

zaingo Sailaren bertsioa jasoko du, eta bi bertsioak edukitakoan iritzia idatziz bidaliko dei Arrasateko emakume taldeei. Era berean, horrelakoak gerta ez daitezkeen neurriak hartzekotan geratu ei ziren.

Emakume kontseiluak bestalde, apirileko batzarrean aztertuko du eurek aurkeztutako mozioa plenoak atzera bota izana.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55



Arineketan, korrika, takarradan, antxintxika, lasterka, aringangan... esateko hamaika modu, baina egiteko bakarra: euskararen leku koaren inguruan, adieraziz euskarak oraindik baduela presarik eta urgentziarik.



LETXUGAK LETXE: FRESKO!

701. kilometroa, Joseba Ezpeletak AEDko lehendakariak, Beñardo Kortabariak ARKOko erredakzio buruak, eta argazkian agertzen ez diren EKIN eta Txatxilipurdikoez eraman zuten elkarrekin lekukoa. Hasierako metrotan fresko zeuden baina bukaeran...!



JENDEA ARNASESTUKA

Berotasunez iritsi zen Korrika, giroa alde batetik eta gogotik eta indarrez jotzen zuen eguzkia bestetik. Nahiz eta metro gutxi batzuk egin, jende dezente ikus zitekeen izerditan blai.



INDARRAK BERRESKURATZEKO... TXOKOLATEA!!

Txokolate lapikokada galanta prestatu zuten Korrika Bartzordekoek takarraran ibilitakoei emateko. Aukeran txokolatea hartzeko bero handiegia egin arren, plaza bete lagun. Izan ere, hain da gozoa txokolatea!

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

EGUZKIGRAF
inprimategia
ARETXABALETA
Industrialdea 1-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792944

M ARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07



EUSKADIKO ITZULIA?

Ez da Pantani eta ez daude Euskal Herriko Itzulian. Bizikletaren gainean agertzen diren lagunek Korrikaren atzetik zeharkatu zuten herria astelehenean. Batzuk takarradan eta beste batzuk bizikletan baina guztiak euskararen alde.




ETA HAUEK GUZTIAK, NORA DOAZ TAKARRADAN?

Pentsatuko zuen bere kolkorako Peru txikiak, aitek kotxe karroa bultzatzen zuen bitartean. Nahiz eta izerdi handirik atera ez, seguru lekukoa daraman Joseba Ugaldek beste gozatu zuela astelehen arratsaldean. Kepa Altube koittadua, semeak arratsaldero horrelako pasioa nahi duela esaten badio.



KORRIKAKO POXPOLINA

Arropa egokiekin egin behar denez korrika, dantza taldeko partaide honek poxpolin arropak jantzi zituen. Bera izan zen Korrikako poxpolinena.



1,2,3,4,5,6...8,9,10 EUSKAL HERRIA KORRIKA

Marisorgintxo hauek Korrika Txikiaren protagonista izan ziren. Bisera buruan eta Korrikaren kartela kolkotik zintzilik zutela ikuskizun animatua eskaini zuten espaloitik.



FERNANDO FORMAN

Begi bistan dago, kiroldegian lan egiten duenez sasoiari dagoela Fernando Aguriondo. Lanbide horrekin edonor!

Siti Siti
Martxa eta estilo handiko erropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 79 81 82

BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 Boda eta banketeak
 Tel.: 79 91 84
 ARETXABALETAK

Lore
 Lurrindegia
 Olarte kalea, 10 • ARRASATE
 Tel.: 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tel/Faxa: 79 01 82



IZENAK

AEDren

zuzendaritza batzordea osatuko duten kide berriak honako hauek izango dira: Josu Belar, Izar Larrañaga, Judith Muruamendiaratz eta Amaia Balda.

Iturripe elkarteak

zuzendaritza batzordea berri du. Kide berriak Salvador Dalmau, Luis Larrea eta Kepa Undagoitia izango dira. Orain arte Iturripe elkarteko kide izateko aukera Uribe auzokoek bakarrik izan duten arren, hemendik aurrera arrasatear guztiei emango zaie aukera.

NON DAUDE 37AN JAIOTAKO EMAKUMEAK?

1937an jaiotako gizon hauek joan den zapatuan elkartu ziren lagun artean egun ahaztezin bat pasatzeko. Eguna triste esnatu eta guardasolarekin irten


behar izan arren, ederto pasa zuten eguna gizon guzti hauek. Hala ere zer gertatzen da, 37an ez zela emakumerik jaio ala?

Hori da Santi Idigorasek duen martxa! Realdeko jokalarari ohiak joan den larunbatean Oñatin

SANTI IDIGORAS DANTZARI

izarra. Saioa Arrasateko Beti Ona gimnasioak antolatu zuen ekintza, eta emakume guztiak txundituta geratu ziren Santiren abileziarekin.

egindako aerobiton saioan parte hartu zuen, eta duda barik bera izan zen



ZENBAKIA

325 pta.tik aurrera

Gipuzkoako taxi elkarteak tarifak berri du. Taxian sartzearekin bat 325 pezeta kobratuko dira eta kilometro bakoitzeko, egunez 110 pezeta eta gauez edo jaiegunetan 175. Bestalde, taxia itxaroten dagoen ordu bakoitzeko egunez 2.100 pezeta kobratuko dira, eta gauez eta jaiegunetan 3.300 pezeta. Ostiraleko plenoan baiezkoa eman zitzaizen taxi elkarteak (AGITAXek) aurkeztutako prezio berriei.

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

SASTARRAIN ATERPEA

Aste Santua • Martxoak 27-31




- Toki aparta Aste Santua naturarekin bat igarotzeko.
- Talde edota familiak.
- Programatutako ekintza ezberdinak.

Sastarrain Aterpea: Lili auzoa, 56. Zestoa • Gipuzkoa • Tel. 943 -14 81 15

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57



ITURGINTZA, GASA ETA BEROGAILUAK

Urte askotako esperientzia merkatuan

Zure etxerako aukera berria!

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik.

Nafarroa, 8 - 2.A • ARETXABALETA • Tel.: 79 64 91 / Tel. mugikorra: 929 47 72 70

ARKOren GIDA KOMERTZIALA

Deba Bailarako Gidarik erabilienal

Norbait ez bada agertu edo bere datuak txarto agertu badira, deitu telefonoz hurrengo Gidan ondo agertzeko.

Mila esker beste urte batez gurekin egoteagaitik.




ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Gida 97rako GEHIGARRIA

Arrasate Aretxabaleta Eskoriatza Leintz-Gatzaga

Gida 97rako zuzenketak, eta enpresa berriak



ARRASATE

ARRAINDEGIAK

TOMAS. Olarte, 371 16 79

ASEGURUAK

GERTU
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.77 10 73

BITXITEGIAK

IRALA. Hiper Eroskin.79 36 47

ELEKTRIZITATEA

ELEKTRA S.A. Katalde poligonoa, 2371 20 38

ELKARTEAK

naizoiarteko elkertasuna
MUGARIK GABEKO INJENERITZA79 47 90

ENMARKAZIOAK

KORO. Olatra, 179 77 31

GILTZAK

RUBIO. Hiper Eroskin.79 76 03

GOZOTEGIAK

OBLONGO. Hiper Eroskin929 08 73 39

JANTZIDENDAK

BAI-BAI. Bañez Doktorea, 1579 06 37
FUGAZI. Iturrutz, 7 bis77 12 71
LOS TEJANOS. Hiper Eroskin79 80 36

konponketak

ARRGLOS. Hiper Eroskin.909 27 40 95

KAFETEGIAK

DOKE. Garibai, 6
EROSKI KAFETEGIA. Hiper Eroskin79 55 69

LURRINDEGIAK

BAI-BAI. Bañez Doktorea, 1579 06 37

OINETAKOAK

oinetako konponketak
RUBIO. Hiper Eroskin.79 76 03

OPARIDENDAK

sukalde artikuloak

ELTZE. Ferreñas, 28-C79 65 08

OSASUN ZERBITZUAK

TALDE MULTIPROFESIONALA. Arrasate Pasalekua79 71 43

erreumatologia

JUAN RAMON ARANDO. Erolko kale, 22-179 72 16

optikak

INSTITUTO OPTICO. Hiper Eroskin.79 78 26

PRENTSA ETA ALDIZKARIAK

PRENTSA TXOKOA. Hiper Eroskin

SINDIKATUAK

ELA. Olatra, 2279 45 09

TABERNAK

ARROGOI. Zarugalde, 2879 06 40
AZKAR. Udape79 60 43

ZERBITZUAK

UREN ZERBITZUA. ARRASATEKO UDAL.~~79 48 42~~

ARETXABALETA

AROTEGIAK

OLTZA. Araba Ibilbidea, 3679 07 62

ASEGURUAK

GERTU
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.77 10 73

AUZO ALKATEAK

GELAO. J. M^o OTXOA. Altxalde Baserria79 05 26

ITURGINTZAK

SANER. Nalarroa, 8 - 2. A79 64 91. Mugikorra: 929 47 72 70

ESKORTATZA

AUTOBUSAK

AITZORROTZ71 49 53

ESTETIKA ZENTRUAK

ESTI. Jose Arana, 14-171 43 70



Udal Aurrekontuak

97

Joan den ostiralean onartu ziren 1997ko aurrekontuak HBren, EAJren, PSE-EEren eta EAren aldeko botoekin. EBk, berriz, aurka bozkatu zuen eta PPko zinegotzia ez zen plenoan izan.

HB eta EB partida batzurekin ados ez daudenez, emendakinak aurkeztu zituzten eta plenoan

horien defentsa egin zuten baina ez zen bat ere onartu.

Pleno horretan, EBko zinegotziak esan zuen, aurtengo aurrekontuak iazkoen berdinak direnez, iaz egin zuten moduan aurten ere aurka bozkatzea erabaki zutela. HBko zinegotziak, ostera, aurrekontuak guztiz gustokoak izan ez arren erdia

baino gehiago onargarria dela iritzi zion. Gainontzeko alderdiek ez zuten baloraziorik egin plenoan.

Urtero moduan, hemen dihoakizue aurten dirua zertan gastatuko den. Hala ere, dirulaguntza guztiak aipatzea gehiegizkoa izango litzatekeenez bakarrik, garrantzitsuenak aipatzen dira.

AURREKONTU OROKORRA

3.302.897.034 pta.

(laz baino 548.608.709 pta. gehiago)

SARRERAK

- Zuzeneko zergak584.710.000 pta.
- Zeharkako zergak85.000.000 pta.
- Tasak eta prezioak447.558.280 pta.
- Transf. korronteak1.384.927.312 pta.
- Ondare sarrerak31.000.000 pta.
- Inbertsioak inorenganatzea50.000.000 pta.
- Kapital transferentziak411.100.000 pta.
- Finantz aktiboen aldaketa10.000.000 pta.
- Maileguak112.241.632 pta.

GASTUAK

- Pertsonal gastuak672.361.161 pta.
- Ondasunak eta erosketa539.164.819 pta.
- Interesak135.070.244 pta.
- Transferentzia arruntak588.239.918 pta.
- Inbertsioak930.918.001 pta.
- Kapital transferentzia81.312.001 pta.
- Finantz aktiboen aldaketa11.000.000 pta.
- Amortizazioa158.471.080 pta.

GOBERNU ORGANOAK.....35.112.637

- Gobernu organoen ordainketak23.600.000
- Alkatearen hartzekodunak5.722.637
- Alkatearen mutualitatea1.275.000
- Funtzionamendu gastuak890.000
- Arantzazuko erromesaldia.....75.000
- Argitalpenak2.500.000

KULTURA ETA KIROLA.....434.650.769

- Pertsonalaren gastuak43.895.269
- Kultur ekintzak.....10.609.000
- Jaietako gastuak.....21.680.000
- Txikilandia2.425.000
- AUKExaren defizita85.760.000
- Kulturarako dirulaguntzak10.365.000
- Arrasate Txirrindulari Elkartearendako ...2.500.000
- Arrasate Musikalendako39.000.000
- AEDko ludoteka5.200.000
- Ferixalekuko frontoia150.000.000
- Musakolako kiroldegia.....30.000.000

HEZKUNTZA.....102.356.172

- Pertsonal gastuak.....15.040.792
- Ondasunak eta zerbitzuak.....24.402.500
- Hezkuntzako dirulaguntzak8.550.000
- Herri ikastetxeen proiektuetarako.....3.690.000
- SFX ikastola16.330.000
- Umezaintza.....3.715.000
- Institutua4.702.880
- Almen1.765.000
- San Viator8.795.000
- La Merced4.265.000
- Hezkuntzako inbertsioak11.100.000

GAZTERIA.....26.163.758

- Pertsonalaren gastuak6.602.758
- Gazteria batzordearen ekintzak10.815.000
- Gazteriako dirulaguntzak6.870.000
- Gazteen bulegoa: funtzionamendua390.000
- Korrespontsalak500.000
- Gazteria zerbitzurako erosketak520.000



GIPUZKOAKO KONTSEILARIAK

ASESORES DE GIPUZKOA

Zerbitzu fiskalak • Kontabilitatea
Zerbitzu laboralak • Auditoriak
Zerbitzu Juridikoak

Otalora Lizentziatua, 4 etxabea
Tel.: 79 93 11 • ARRASATE

OSASUNA 262.481.294

- Pertsonal gastuak 29.928.040
- Etxeko laguntza zerbitzua 65.000.000
- KIUBen ekintzak 1.200.000
- Iturbide egoitzaren defizita 67.584.044
- Pobreziaren kontrako plana 34.000.000
- Hirugarren adinekoendako 6.410.000
- Uribarriko zahar etxeko inbertsioak 33.000.000
- Egoitzako inbertsioak 2.700.000
- Beste zahar etxeen inbertsioak 1.500.000
- Babesetxea: funtzionamendua 200.000
- Babesetxearen ekipamendua 393.000

HIRIGINTZA 716.985.714

- Pertsonalaren gastuak 73.745.713
- Ondasunak eta zerbitzuak 9.125.000
- Ingurugiro taldeendako dirulaguntzak 500.000
- Uharkapeko diru-sarrerren baldintz. zenbait inbertsio 120.000.000
- Alde zaharreko urb. plana 28.500.000
- Uharkape-obra subsidiarioak 140.000.000
- Otalora lizentziatua berritu 50.000.000
- Uriburu-Erguin eskailerak 20.000.000
- Hirigintza oztopoak kentzea 8.000.000
- Makatzena 15.000.000
- Maalako urbanizazioa 22.000.000
- Lur industrialia 100.000.000
- San Juan Parrokia 25.000.000
- Garagartzako Parrokia 2.500.000
- San Kristobal hilerria handitzea 15.000.000

AUZOAK 72.488.177

- Auzoetako jaietarako dirulaguntza 7.044.623
- Auzoetako inbertsioak 21.000.000
- Mendi nekazaritzako inbertsioak 7.000.000
- Baserri bideak 20.000.000
- Baserri auzoetako seinalizazioa 2.000.000
- Nekazaritzako kuota 2.475.996

FINANTZ ZORRA 293.541.324

- Maileguen interesak 135.070.244
- Amortizazioa 158.471.080

Ikastaro berriak



AKADEMIA
BASTIDA
INEM - 44 HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1.a
Arrasate
Tel.: 79 32 16
Fax: 79 06 28

PLANOEN IRAKURKETA

VISUAL BASIC

NEUMATIKA - HIDRAULIKA

KANPO MERKATARITZA

WINDOWS - NT

INTERNET

LANGAI-Euskal Lan Zerbitzura atxikia

Angoisa, S. A.

ETXEBIZITZEN PROMOZIOA

Munar, 10 • ARRASATE • Tel.: 79 83 08

PERTSONALA273.841.427

- Pertsonalaren gastuak174.752.820
- Udal aseguruak11.500.000
- Enpleguaren ekintzak7.800.000
- Prentsa eta irratiko iragarkiak4.120.000
- Lege-aholkularitza5.000.000
- Lantegi eskola7.257.290
- Lanbide hastapena7.619.357
- Pertsonalaren aurrerakinak10.000.000
- Enpresa ekimen berriak-EEZ1.100.000
- Egitura ekonomikoaren modernizazioa ...2.325.200

EUSKARA154.360.881


- Pertsonalaren gastuak84.744.062
- Ondasunak eta zerbitzuak12.496.819
- Euskararako dirulaguntzak49.260.000
- Euskara bekak1.770.000
- ATB lokalen inbertsioak1.360.000
- Egunkaria akzioen erosketa1.000.000
- Euskaltegiko inbertsioak2.080.000
- ARKOren inbertsiotarako1.650.000

ZERBITZUAK729.868.897

- Pertsonalaren gastuak208.992.896
- Ur eta saneamendurako erosketak13.500.000
- Parques y Jardines: manten. zerbitzua ..71.770.000
- Mankomunitatea-hondakin solidoak43.600.000
- Mankomunitatea-errautzea18.150.000
- Uren partzuegoaren kuota71.940.000
- Uren partzu. saneam. azpieg. kanona..52.162.000
- Barandatuak3.000.000
- Elurra kentzeko makina erostea928.000
- Garraio publikoa1
- Epaitegiko inbertsioak1.600.000
- Aldaiko hilerriko inbertsioak2.000.000

EMAKUMEAREN BATZORDEA14.686.174

- Pertsonalaren gastuak4.061.174
- Emakumearen udal kontseilua9.425.000
- Dirulaguntzak1.065.000
- Pertsonalaren ikastaroak50.000
- Argitalpenak60.000



Eraikuntzak


Errotaburu pasealekua, 1 10. solairua Erguin, 5 etxabea
 Tel.: 31 12 19 Tel.: 79 15 73 / 79 83 45
 Faxa: 31 12 22 Faxa: 79 53 02
 DONOSTIA ARRASATE



KONTRATAK IRUROK ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
 Tel.: 77 09 92 / Faxa: 79 78 14
 ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
 Tel.: 78 21 82
 OÑATI



**Ostiralero
merkadiloan!!**

**Goienkalea, 16
DURANGO**

Kalean saldu, kalean erosi

Batean San Juanen hurrengo ostiralean San Andresen, astero-astero 56 dendari etortzen dira azokan euren postua jartzera.

Karakolen antzera denda gainean dutela alde batera eta bestera ibili behar izan arren, dendari gehienek aitortzen dute ez luketela lanbidez aldatuko. Zerbait berezia badute dendari hauek, asko izaten dira eta zerbait erostera hurbiltzen zaizkien arrasatearrak.

Oihalak, aterkinak, galtzerdiak, kartarak, zapatak, barruko arropa, sukaldeko ontziak, mantak, kirolerako arropa, erlojuak... zerrenda luzea osatuko genuke azokan aurki daitezkeen produktu guztiak aipatzen hasiko bagina.

Gauza asko eta erosteko beste modu bat eskaintzen dute azokek. Erosle batzuk prezio merkeengatik gerturatzen dira

azokara, beste batzuk dendarien umore bitxiarengatik eta badago denbora pasatzeko joaten denik ere. Hori bai, guztiek zerbait erosten bukatzen dute, azokako saltzaileek saltzea zer den oso ondo dakite eta.

GUSTOKO LANBIDEA

Jesusek 28 urte ditu eta betidanik azokaz-azoka lan egin duela esaten du. Gainontzeko saltzaileek bezala, Jesusek gus-

toko du bere lanbidea, eta beste zerbaitetan lanean hasiko litzatekeen galdetzean ezetz dio. "Barre egin eta ondo pasatzen dut, gainera ez nago aspertuta, beraz zertarako aldatu!" dio Jesusek.

Saltzaileek gustora lan egingen dutela diote, baina azoketan dirua ateratzen delako daude lanbidearekin gustora. Meritxek, arropak saltzen dituen emakume batek aitortzen duenez, beste lan batzutan haste-



Asko izaten dira ostiralero azokara joaten direnak zerbait erosteko asmoz.

ko aukera izan du baina ez du aldatu. "Hemen gauden guztiok aspalditik gabiltza lan honetan eta inork ez du aldatu nahi, zerbaitegatik izango da".

Negozia ona da. Dударik ez dago. Postua duten gehienek euren herrian denda eduki, baina azoketan gehiago saltzen dela esaten dute. Mari Nievesek eta Manolok, esaterako, denda bat dute Legazpin eta azokan askoz ere gehiago irabazten dutela aitortzen dute. "Dendara gehienez 30 lagun etorriko dira, baina hemen pentsa goiz batean zenbat eta zenbat lagun pasatzen den".

Pozik lanbidearekin eta baita Arrasaterekin. Batzurenako San Juanekoan salmenta hobea lortzen da, Musakolako jendea ere gerturatzen zaielako, baina gehienek batean zein bestean antzera saltzen dela diote. Mylarbe izeneko marokiarrak behintzat pozik etortzen da alfonbrak saltzera. "Jendeak ezagutzen nau, eta emakume arrasatearrak atseginak dira".

ERAGOZPENAK

Hala ere ez da dena larrosa kolorekoa. Saltzaile hauen lana ez da eroso nahiz eta ohitura egon. Goizean goiz jeiki, denda montatu eta guztia txukun jarri, gero guztia batu eta buelta etxera, neguko eguraldi euritsuak edo udako beroak aguantatu... Hurrengo egunean ere gauza bera, aste gainontzeko egunetan beste herri batzuetara joaten direlako, eta askok igandetan ere lan egiten du.

Uda aldean ere opor gutxi. Batzuk hamabost eguneko oporraldia hartzera ausartzen dira, baina saltzaileek badakite uda parte saltzeko garai aproposa izaten dena. Hori dela eta, abuztuan nahiz eta herria erdi hutsik izan, Arrasaten sekula baino postu



Mertxe eta Pako, elorriarrak

Mertxek eta Pakok ez dute gogoratzen zenbat urte daramaten Arrasatera etortzen, baina ideia bat egiteko "Maritxu Kajoi asko" direla esaten dute. Gazteendako arropa saltzen dute, eta pozik daude Arrasaten erosle jakin batzuk dituztelako. Londresetik, Madriletik edo Bartzelonatik ekartzen dute arropa.

gehiago jartzen da azokan. Hori bai, gehienak marokiarrak izaten dira eta Udalaren baimen barik jartzen dute postua. Horrek hala ere ez du esan nahi, azoketan egoten diren marokiak guztiek baimen barik egiten dutenik lan. Mylarbek, esaterako, baimen guztiak ditu eta bera inoiz ez dela egoera ilegalean egon azpimarratzen du. Alderantzizkoa pentsa daitekeen arren, gaur egun azokako saltzaile guztiak egoera legalean daude eta abuztuan izan ezik, arraroa da baimekin ez duen norbait aurkitzea.


BAKOITZA BERE ALDETIK

Mertxek dioenez, azokako saltzaileek elkar ezagutu eta orokorrean harreman ona dute, baina oso indibidualistak ei dira. "Oso zaila izaten da zerbaite lortzeko edo egiteko inda-

Abuztuan, nahiz eta herria erdi hutsik izan, Arrasaten sekula baino postu gehiago jartzen da azokan. Hori bai, gehienak marokiarrak izaten dira, eta Udalaren baimenik ez dute izaten.


rrak batzea" adierazten du Bizkaiko azoka saltzaileen elkarteko idazkaria den emakume honek. Bizkaiko elkarteko bazkide dira inguruko saltzaile batzuk, baina gutxitxo idazkariaren ustez. Elkartea, saltzaileei aholkularitza eman, eta Udalek zergatan egin ditza keten igoerak kontrolatzeko jaio da besteak beste.

Beharbada azoketan dagoen konpetentzia handiak zerkusia du bakoitza bere aldeetik mugitzearekin. Saltzaile guztiek aitortzen dute azken urteetan konpetentzia izugarri handitu dela, eta horregatik, arretaz begiratzen dute albotxoak zein prezio dituen eta ea zenbat saltzen duten. Manolok eta Mari Nievesek diotenez, barruko arropa saltzen duten postuak asko ugaritu dira eta euren artean konpetentzia handia dago. Azken finean,



Manolo, legazpiarra

Orain dela 21 urte lantegia utzi eta azoketan saltzen hasi zen emaztearekin batera. Barruko arropa saltzen dute, eta Legazpin ere badute denda bat. Hala ere, azokan gehiago saltzen dela aitortzen dute.



Mlylarbe, marokiarra

1981ean heldu zen Euskal Herrira eta urte batzuk beranduago familia etorri eta orain Zumarragan bizi dira. Santanderretik ekartzen dituen alfonbrak saltzen ditu azokan.

merkatuko legeak ezartzen dira azoka berezi hauetan ere.

TOKIZ ETA EGUNEZ ALDATZEA UDALAREN ASMOAK

Ez dago zehatz jakiterik Arrasaten noiztik egiten den azoka, baina elkarrizketatu batzuk esan dutenez 35 urtetik gora izango dira.

Urte luze horietan hala ere ez da beti toki berdinean kokatu. Hasieran Sebero inguruan egiten ei zen, janariarekin batera. Ondoren, San Andresera eta San Juanera pasa zen eta orduetik bertan egiten da.

Tokia dela eta, aurrera begira ere Udalarari pasa zaio burutik azoka tokiz eta egunez aldatzea, baina erabakirik ez dago oraingoz. Lau Biden edo Zaldibar inguruan egitea pentsatu da, zapatutan azoka plazan egiteaz ere hi-

Aurrera begira azoka egunez eta tokiz aldatzea pentsatu du Udalak, baina erabakirik ez dago oraingoz. Lau Biden, Zaldibarren edo zapatutan azoka plazan egiteaz hitzegin da.

tzegin da... Aukera asko baina saltzaileekin ados jartzea ez da erraza izango.

Horrez gain, azoka berrantolatzeke asmoa ere badu Udalak, eta 98rako arautegi berria gertu izatea espero du. Orain dela bi urte, adibidez, Udalek baimenak urtero eman behar dituztela zioen legea atera zen, eta Arrasaten ere lege horrek dioena bete beharko da. Gaur egun, ostera, postuak ez dira berritzen eta gehienek urte asko daramate Arrasatera etortzen. Bestalde, tokirik ez dagoela eta, azken lau-bost urteotan Udalak ez du azokarako adjudikazio berririk egin. Hala ere, Arrasateko itxaron zerrendan 50 saltzaile baino gehiago daude postu bat noiz eskuratuko zain.

Kale zati bat betetzeagatik, azokara datozen dendariak bi hilabetero ordaintzen dio-

te Udalarari. Arrasaten metro karratuko egunean 300 pezeta ordaintzen dira, eta saltzaileek diote beste herri batzuekin konparatuta prezio hori ez dela garestia. Mlylarbek, esaterako, bi hilabetero 17.000 pezeta ordaintzen dizkio Arrasateko Udalarari, eta Manolok 15.000.

Saltzaileak hala ere kexu dira era legalean egon nahi badute zerga ugari ordaindu, eta horrek urtean diru kopuru handia gastatzen esanahi duelako. Mertxek dioskunez, autonomoen aseguruia, lizentzia fiskala eta erantzukizun zibileko aseguruia atera, eta gainera Udalei ordaindu behar diete. "Azkenean, azokan postua jartzea denda bat edukitzea baino garestiago ateratzen da" dio Mertxek. ■

Maria Agirre

Futbol atezaina

IBAN RODRIGUEZ

“Selekzioan bizi izandako esperientzia zoragarria izan da”

— Atezaina noiztik eta zein taldetan?

— Lau urte dela UDAn hasi nintzen jokatzen atezain moduan. Orain kadete taldean nabil.

— Estatuko selekzioan egon zara.

— Bai martxoaren 3tik 5era aurreselekzioan egon nintzen Madrilén. Niretzat gauza handia izan zen. Bertan giro oso ona zegoen eta hiru egun bakarrik egin arren, esperientzia polita bizi nuen. Orain berriro deitzeko irrikaz nago.

— Nola deitu zizuten?


— Zumarragara joaten naiz eskola arteko futbolean parte hartzeko. Behin Gipuzkoako selekzioarekin frogatzeko deitu eta ondoren Euskadikora joan nintzen. Hor ezagutu ninduten estatuko selekziokoek eta gero deitu.

— Zein ezaugarri dituzu atea babesten?

— Oso sartuta egoten naiz partiduan eta atean geldi egoten ez den horietarikoa naiz.

— Serio hartu duzu futbola?

— Oso serio, gainera profesionala izatea gustatuko litzaidake. Nire gogoko taldea Real Madril da eta atezain moduan Zubizarreta, Molina eta Prat gus-tatzen zaizkit.



RUGBYA Akabo denboraldia



Arrasate rugby taldearentzat bukatu da 96-97 denboraldia. Azken neurketa Zarautzen kontra jokatu eta 32-8 galdu zuten. Patxi Gorosabelen mutilak ez dira txarto ibili denboraldian eta horren lekuko sailkapen nagusian betetzen duten 6. tokia. Euren aurretik Eibar, Getxo, Zarautz, Hernani eta Unibertsitatea taldeak kokatu dira. Hemen-dik aurrera rugbyari lagun arteko partiduak jokatuko dituzte eta baliteke Kopa txapelketan ere parte hartzea. Azken erabaki hori dena dela oraindik ez dago ziurtatuta. Bestalde Herensugeak beterrano taldeak apirilaren 12an Getxoren kontra neurtuko ditu indarrak Bizkaian. Egun horretarako sasoiari jartzeko lehenbailehen entrenatzen hasteko gonbitea egiten zaie jokalariei beterranoiei.


FUTBOLA Mondra aldatz behera



Preferente mailako Mondrak azken bost ihardunaldietan hiru neurketa galdu ditu eta bi berdindu, hau da, bi puntu baino ez ditu lortu. Horren ondorioz 3. tokitik 6.era jeitsi da. Datorren domekan beste hiru puntu lortzeko aukera paregabea izango du Mondrak. Aurrean Beti Ona taldea egongo da, une honetan azken aurreko sailkatua. Lehen bueltan Mondrak 1 eta 2 irabazi zion Oreretako taldeari. Neurketa arratsaldeko 4.30etan jokatuko da Atxabalpen. Emakumeek Aste Santu ostera arte atsedena izango dute. Joan den zapatuan berriz,

hiruna berdindu zuten Atxabalpen Lagun Onak taldearen aurrean.

ESKUBALOIA Bigarren mailan dagoeneko



Arrasate eskubaloi taldeak lehen mailan jarraitzeko aukera guttiak galdu ditu. Casablanca taldearen kontra 24 eta 21 galdu ondoren, Ibon Alzelaireren mutilak bigarren mailan daude. Denboraldia bukatzeko partidu bakarra falta zaie, baina lasai jokatzen moduan izango dira, jokoen ez dago ezer eta. Datorren domekan eguerdiko 12.30etan Arrasate eta Bordils izango dira nor baino nor Iturripen. Bordils 4. da sailkapen nagusian 23 punturekin. Arrasatek 21 ihardunaldi jokatu dituenean 12 puntu ditu eta azkena da. Kontuan hartuta talde biek ez dutela ezer jokoa eta presio barik arituko direla, pentsa daiteke partidu polita izan daitekeela.

SASKIBALOIA Promozioa prestatzen



Urbina Maltzaga jeitsierako promozioa prestatzen ari da dagoeneko. Dena dela oraindik ez da denboraldia bukatu eta datorren zapatuan Mollet taldea izango du areario. Molletek 29 puntu ditu eta azken aurreko sailkatua da. German Mongeren mutilentzat garaipea lortzea nahi eta nahiezkoa da, batez ere azken tokia uzteko. Neurketa zaila izango bada ere, arrasatearrak baikor daude eta puntuekin itzuliko direla uste dute. Ea ba horrela den!

Arrasate Kirolak taldea laugarren Euskadiko txapelketan

Emaizak

60 metro hesi

Juan carlos Martin 3. 9"58

Pertika Jauzia

Jonatan Perez 3. 2'80

Jauzi hirukoitza

Oliver Fernandez 6. 10'63

200 metro

Aitor Arnaiz 4. 23"62

3.000 metro

Jabier Mentxaka 6. 9'29

Pisu jaurtiketa

Asier Arroiabe 3. 11'67

Altuera jauzia

Jokin Lezama 3. 1'75

800 metro

Felix Sanchez 5. 2'04

400 metro

Manuel Anguas 5. 51"84

Luzeera Jauzia

Mikel Uribealago 3. 6.14

60 metro

Unai Sarabia 4. 7"34

1.500 metro

Jose Ramon Petreñas 6. 4'19

4X200 Erreleboa

Sarabia, Davila, Anguas eta Arnaiz 4. 1,34"

Arrasate Kirolak atletismo taldeak laugarren postua eskuratu zuen Basauriko Artundaga kiroldegian egin zen neguko taldeen arteko Euskadiko X. txapelketan. Arrasate 38 punturekin Barakaldo hirugarren sailkatuarekin parekatuta geratu zen. Aurretik Unibertsitatea eta Iruña taldeak kokatu ziren. Neguko pista estaliko denboraldia bukatu da atleta gazte hauentzat. Hemendik aurrera udako txapelketei begira prestatzen hasi beharko dira. Basauriko txapelketan herriko ordezkariak hainbat probetan hartu zuten parte ondoko emaitzak lortuz.



Emaitza bikainak lortzen ari dira atletak.

Realaren torneooa Atxabalpen

Apirilaren 28an Realaren nazioarteko torneooko partidu bat jokatu da Atxabalpen. Realak urtero antolatzen du jubnil mailako txapelketa eta aurten zortzi talde egongo dira: Real Madril, Bartzelona, Osasuna, Athletic, Borussia, Oporto, Euskal konbinatua eta Reala. Atxabalpen arratsaldeko 5etan Bartzelona eta Athleticen arteko neurketa egongo da ikusgai.

Udaberriko txirrindulari saria

Arrasate Txirrindulari Elkar-teak antolatuta, Udaberriko III. txirrindulari saria korrituko da zapatuan Arrasaten. Jubnil mailako lasterketak 85 kilometro izango ditu eta arratsaldeko 3.30etan hasiko da. Bukatu berriz, 5.30etan.

Trialsin txapelketan bi domina lortu dituzte arrasatearrek

Gipuzkoako trialsin txapelketaren azken probaren lekuko izan ziren Udalako zelaiak. Domekan eguraldi onarekin bizikleta gaineko protagonista gazteek ikuskizun paregabea erakutsi zuten. Juniorrek, infantilek, alebinek eta emakumezkoek hartu zuten parte. Azken proban juniorretan Dani Garriz izan zen irabazlea, infantiletan Iker Lezeta, alebinetan Diego Barrio eta emakumezkoetan Aiora Obeso. Xabi Abasolo arrasatearrek alebinetan

hirugarren toki eskuratu zuen. Sailkapen nagusian berriz, bi arrasatearrek domina lortu ahal izan zuten: Nestor Kortabarriak infantiletan eta Xabi Abasolok alebinetan hirugarren saria. Motozale elkar-teak antolatutako ekintza arrakatsua izateaz gain, antolatzaileek zegoen maila azpimarratu zuten. Kontuak kontu, trialsinak gero eta jarraitzaile gehiago ditu eta batez ere gazteen artean piztu da kirol horrekiko zaletasuna.



Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berdt.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Fosforos	1	1	0	0	10	2	2
MSM Ing. Integral	1	1	0	0	7	5	2
Aurrera Bolie	1	1	0	0	6	5	2
Adelaida Aldibi	1	0	1	0	2	2	1
Pepelus	1	0	1	0	2	2	1
Txeyenex	1	0	0	1	5	6	0
Abinagraus	1	0	0	1	5	7	0
Sortu Informatika	1	0	0	1	2	10	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berdt.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Insert Coin	1	1	0	0	3	1	2
AC Surcos	1	1	0	0	5	2	2
Koka Juniors	1	1	0	0	3	2	2
Naranja Mekanika	1	1	0	0	4	3	2
Orlando Piratas	1	0	0	1	3	4	0
Arrogoi Taberna	1	0	0	1	2	3	0
Okoretegi	1	0	0	1	2	5	0
Totem	1	0	0	1	1	3	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berdt.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Diego Antonio	1	1	0	0	2	0	2
Me la pela	1	1	0	0	10	2	2
Onaniereng	1	1	0	0	10	5	2
Irati STS	1	1	0	0	9	5	2
Sokoakoak	1	0	0	1	5	9	0
Los Innombrables	1	0	0	1	5	10	0
Lorategi	1	0	0	1	2	10	0
Galartza Kont.	1	0	0	1	0	2	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berdt.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Cerveceria Leintz	1	1	0	0	3	1	2
Betrayer	1	1	0	0	4	3	2
Jotakabau	1	0	1	0	6	6	1
KK Jaurlaritzari	1	0	1	0	6	6	1
Nuevo Taberna	1	0	1	0	6	6	1
Ojo avisore	1	0	1	0	6	6	1
Ke Oxtias	1	0	0	1	3	4	0
Bedarreta Taberna	1	0	0	1	1	3	0



Hurrengo partiduak

Martxoak 22, larunbata

- 8.50 Arrogoi tab. - Orlando Pirates
- 10.00 Okoretegi - Insert Coin
- 11.00 Irati STS - Galartza kont.
- 12.00 Diego Antonio - Sokoakoak
- 13.00 Naranja Mecanica - Koka Juniors
- 14.00 Leintz garag. - Ojo Avisore
- 15.00 Lorategi - Los Innombrables
- 16.00 Betrayer - KK Jaurlaritzari
- 17.00 Nuevo tab. - Ke Oxtias!!
- 18.00 MSM Ing. Int. - Fosforos
- 19.00 Sortu Informatika - Abinagraus

Martxoak 23, igandea

- 8.50 Jotakabau - Bedarreta tab.
- 10.00 Onaniereng - Me la pela
- 11.00 Totem - AC Surcos
- 12.00 Adelaida Aldibi - Aurrera Bolie
- 13.00 Txeyenex - Pepelus

Irudia



KORRIKAREN ALDE AURREZ AURRE.

Argi Ibili eta Zuloak taldeak berriro aurrez aurre jarri ziren domekan Zaldibarren. Korrika zela eta azken bi urteetako irabazleak nor baino nor izan ziren. Lehia horretan Argi Ibili nagusitu zen 7 eta 2. Hauek oraindik sasoian daude!

Emaitzak

A taldea

Sortu Inform. 2 - Fosforos 10
Txeyenex 5 - Aurrera Bolie 6
MSM Ing. Int. 7 - Abinagraus 5
Adelaida Aldibi 2 - Pepelus 2

B taldea

Naranja Mek. 4 - Orlando Pir.3
Okoretegi 2 - AC Surcos 5
Arrogoi Taberna 2 - Koka Juniors 3
Totem 1 - Insert Coin 3

D taldea

Irati STS 9 - Sokoakoak 5
Lorategi 2 - Me la pela 10
Diego Antonio 2 - Galartza Kont. 0
Onaniereng 10 - Los Innombrables 5

E taldea

Betrayer 4 - Ke Oxtias 3
Cervec.Leintz 3 - Bedarreta Tab. 1
Nuevo taberna 6 - KK jaurlaritzari 6
Jotakabau 6 - Ojo Avisore 6

Laburrak

BI ZIGOR

Bigarren faseko lehen ihardunaldian bi jokalaririk zigorritu zituzte. Ojo Avisorek Jotakabau taldearen kontra neurtu zituen indarrak. Neurketan arazo batzuk izan ziren eta Iñigo Zabala Ojo Avisorekoak partidu bateko zigorria bete behar du. Txeyenex eta

Aurrera Bolien arteko partidua ere ez zen guztiz lasaia izan eta antolakuntzak bi partiduko zigorria ezarri dio Jokin Ayastuiri Aurrera Bolie taldeko jokalaritari.

PARTIDU ERAKARGARRIENAK

Lau norgehiagoka gomenda-

tuko ditugu. Zaldibarren 11etan Irati STS eta Galartza Kontenedoreak jokatuko dutena eta arratsaldeko betan MSM Ingenieria Integral eta Fosforosen artekoa. Neurketa hauek zapatuan jokatuko dira. Domekan berriz, 11etan Totem eta AC Surcos izango dira lehian. Ordu bete beranduago Adelai-

da Aldibiren arerioa Aurrera Bolie izango da.

BIGARRIN FASEA

Bigarren faseak zazpi ihardunaldi izango ditu eta dau den multzoetatik lau talde sailkatuko dira. Une honetan sei ihardunaldi baino ez dira falta.



ZELAIA

1.970 - 1.997



Igeltzaritza



Iturgintza, Gas eta Berogailua



Elektrizitatea eta Elektronika



Zurgintza-muntaiak



Poliuretanozko eta PVCzko leihoak

**OBRA INTEGRALAK EGITEN DITUGU
OSO DENBORA LABURREAN**

Xabier Baró musiko kataluniarraren kontzertua igandean Gaztetxean

Lleidako musiko honek urte asko daramatza lanean. 80. hamarkadan, folkly mobida eta rock-a nahasten zuten zenbait talde (Primavera negra eta Los tormentos) zuzendu zituen, beraiekin izugarritzko abestiak konposatuz.

90. hamarkadan, ordea, Xabierrek bere abiapuntutik at, musiko bakarleri bezala jarraitzen dio bere bideari. 1993. urtean, bakarkako lehen lana atera zuen, "Blues de las muestas" izeneko. Honek, hamaika abestitan, gitarra elektrikoaz lagundutako kantautore berritzaile bat aurkezten digu, sinpleki, instrumentazio minimoarekin. Kritika onak jaso zituen eta nolabaiteko errekonozimendua.

Atsedetik gabe jotzen jarraitzen du eta pixkat beranduago, 1993. urtean (bakarkako) 2. lana kaleratzen du, "Mundo primitivo" izenarekin. Bertan, produkzioak oso garrantzi gutxi hartzen du eta



Xabier Baró musikoak bere azken lana aurkeztuko du igandean Gaztetxean.

bera melankolikoagoa bihurtzen zaigu. Gainera, Coyotes eta Malevaje taldeetan aritutako Ramon Gadesek lagundu zuen, gitarra espainolaren eta laud-aren soinuaz.

Lan hauek eta bere pro-

posamenak izandako erantzunari muzin eginez, estatua zeharkatzen dihardu, bere emankizun biluziak eskainiz. Bere bidaietako bakardadean, bere sena biluztu eta 3. lana idazten du, (1996. urtean hain

zuzen), "Sentado en la lenta atmosfera de la confusión" izena hartuko duena. Bertan, gitarrarain, biolin eta organu soinuak aurki ditzakegu, eta askorentzat bere lan onena dugu hau.

Bob Dylan, Neil Young edota Woody Guthrie-rekin antzekotasunak aurki dakioke, eta azkenaldian Baudelaire eta Rimbaud-en hitzak bere abestietara moldatu ditu. Dramatikoa suertatzen da batzutan, hunkigarria bestetan eta gizarteko hainbat gauzei kritika zorrotza jantzi edo barre egiten die bere erara.

Ausartuaz gero, Gaztetxean (Arrasaten) izango duzu (bere ahots eta gitarra, biolinista baten laguntzaz), igande honetan bertan (martxoak 23) arratsaldeko 7etatik aurrera, "Parnaso del suburbio" kontzertu-espektakuluan, bere azken diskoa aurkezten.

Iker Barandiaran

Kazetari lanpostua

ARKOk (Arrasate Komunikabideak) aste bukaeretarako kazetari bat behar du.

Kurrikulumak: Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 ARRASATE.

Informazio gehiago 79 02 26 telefonoan.

Kurrikulumak ekartzeko epea: apirila 11.


ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

VIRGINIA IMAZ, ANTZERKILARIA

“Jendea identifikatu egiten da antzezten ditugun egoerekin”

Gaur gaueko 10.30etan Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek eta Marilu Albizuk *Molestias Clownicas* saioa eskeiniko dute Amaia antzokian. Obraren arrakasta dela eta, Virginiak eta Mariluk hiru urte daramatzate obra bera toki desberdinetan eskaintzen. Emakumea eta bere osasunaren inguruko komeria barregarriak kontatzen dituen obra honetan emakume asko ikusiko da isladatuta.

— *Molestias Clownicas* obrak hiru urte ditu baina oraindik karteleran jarraitzen du. Arrakasta handia.

— Klown espektakuluek urteekin irabazi egiten dute, ardoak bezala. Gainera gure taldeak ez du urtero obra berri bat estreinatzeko ohiturarik. Jendeak obra bat eskatzen jarraitzen duen neurrian, guk mantendu egiten dugu, eta *Molestias Clownicas*ekin hori gertatzen da. Bestalde, horrenbeste denboran obra bat mantentzeak obra hori hobetuz joatea ekartzen du eta orain gure obra hau oso momentu onean dago.

— Nola deskribatuko zenuke *Molestias Clownicas*?

— Jende helduari zuzenduta dago. Oso erritmo ona du eta bi antzezleriok ez gara ixiltzen, Marilu eta ni, berez, oso berritsuak gara. Dena den, ondo pentsatutako gauzak esaten ditugu, batzutan lengoaiak pailazoaren inozentzia traizionatzen du eta. Obran ikusten da apur bat emakumeon harremana osasunarekin: argaltzeko dietak, ginekologora bisitak, harreman sexualak, hilekoaren minak, automedikazioa... baina batez ere etxeoandreekin lotutako nerbioen gaia tratatzen dugu. Obran esaten dugu eguneroko



nerbioak eta aparteko nerbioak daudela baina azken hauek gero eta gehiago eguneroko nerbio bihurtzen direla. Isladatzen dugu ere mediku kontsultetan emakumeei esaten zaiena, hau da, dauzkan gaitz denak nerbioen ondorio direla. Argumentu horrekin lotuta barre asko egiten dugu obran.

— Zelako erreakzioa izaten du jendeak obran?

— Orain arte oso ona. Jendeari barre eragitea oso lan ederra da eta batzuri malkoak ere ateratzen zaizkie. Ikusten dugu ere obrako une batzuetan jendeak buruarekin baietz esaten duela. Jendea identifikatu egiten da antzezten ditugun egoerekin.

— Zein da gizonen erreakzioa obra ikusterakoan?

— Nire inpresioa da obra honen bidez normalean euredako ezezaguna den mundu bat espatzen ari direla eta oso gustora egoten dira. Barre asko egiten dute eurei buruzko istorioak izan ez arren, eurekin bizi den emakumea obran ikustera heltzen direlako.

aste gazte

■ BEKAK

• “Colegios del Mundo Unido”k, 97-99 ikasturteetan Nazioarteko Batxilergoa ikasi ahal izateko 9 beka kaleratu ditu. Epea: martxoak 31.

• “Ramon Areces” Fundazioak, natur zientzien arloan atzerriko unibertsitate edo ikerketa zentruetan ikasketak osatzeko beka deialdia egin du. Epea: apirilak 25.

• “La Caixa” Fundazioak, Alemanian 97-98 ikasturtean graduosteko ikasketak osatzeko beka antolatu ditu. Epea: apirilak 30.

LANA

• Nafarroako Foru Komunitateak, herri administrazio teknikari lanpostua bete nahi du. Epea: martxoak 28.

LEHIAKETAK

• San Fermin festak iragartzeko kartel lehiaketa, Iruñako Udalak deitua. Epea: martxoak 26.

• Basauriko Udalak, ingurugiroari buruzko lehen argazki lehiaketa antolatu du. Epea: martxoak 31.

IKASTARO GAZTEAK

• Irrati tailerrak: 2 aukera: irrati kontrola edo erredakzio eta lokuzio tailerra (irratsaiolak egiteko). Apiriletik ekainera. Izen emateak Gazte Bulegoan.

• Autodefentsa: apirilaren 8tik 24ra arte, astearte eta ostegunetan. 5.30etatik 8etara, Musakolako kiroldegian.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Arrasateko emakume taldeen eskutik gaur 10.30etan *Molestias Clownicas* lana Amaian

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Juan Carlos Guerra plazan etxebizitzak salgai. Tel.: 79 41 48.

• Eguzki dorrean 80 m²ko etxea eta 20 m²ko garajea salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

• Gesalibar auzoan baserri berria salgai. Dei egin gauez edo arratsaldean 79 97 35 telefonora.

• Maitena kalean duplexa salgai. Tel.: 79 61 09.

2. Erosi

• Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

• Apartamentua alokatzen da Torre Viejan, hileka edo 15 eguneka. Playa del Curaren ondoan dago. Tel.: 79 32 54.

• Txaleta alokatzen da Salobreñasen (Granada). Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 49 98.

• Playa de San Juanen (Alikante) pisua alokatzen da. Astebete, hamabost egun eta hilebeteka. Tel.: 79 49 98.

4. Errentan hartzeko

• Arrasaten etxea alokatuko nuke. Tel.: 79 99 23.

5. Etxe konpartituak

• Logelak alokatzen dira erdialdean dagoen etxe batean. Tel.: 79 87 59. Tere.

GARAJEAK

7. Saldu

• Erguin kalean garajea salgai. Tel.: 79 61 09.

• Kontzeziñon garajea saltzen da. Tel.: 79 55 20.

9. Errentan emateko

• Garajea alokatzen da San Andresen. 65 m². Tel.: 79 13 52.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Etsakerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Etsakerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

• Ferreriasen 200m²ko lokala salgai. Gaueko 9etatik aurrera. Tel.: 79 77 13.

14. Errentan emateko

• Ura eta argi indarra duen lokala alokatzen da. Tel.: 79 76 95.

• Lokal komertziala eskuz aldatu edo alokatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

15. Errentan hartzeko

• Lokala alokatuko genuke lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

16. Bestelakoak

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Etxeko lanak egin edo atarteak garbitzeko neska gertu. Tel.: 929-47 72 65.

• Arratsaldean umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu nago. Tel.: 79 54 06. Maitane.

• Arratsaldean etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko litzuzke. Tel.: 79 98 96.

• Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 25 52.

• Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 95 92. Rakel. Gauetan.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska gertu, dena, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

• Esperientzia eta arduradun emakume pertsona nagusiak zainduko litzuzke. Tel.: 79 05 90.

• Arratsaldean lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Tabernetan lan egiteko ere gertu nago. Tel.: 79 77 79.

• Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 94 62.

• Klinika laguntzailea eta geriatrian titulodun andra pertsona nagusiak zainduko gertu. Tel.: 79 34 53.

18. Etsakerak

• 30 urte inguruko neska behar dut etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

• Hiru edo lau hilebeterako elektrizita bat behar dut tentsio bajuko berifikazioak egiteko. Tel.: 937 41 89 71. Santi.

• Pertsona bat behar da bi ume zainduko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 03 26. Gauez deitu.

• Olarte kalean dagoen BK dendan dependientea behar dugu. 25 urte tik gorakoa. Euskalduna. Tel.: 79 79 06

19. Bestelakoak

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

• Gauetan eta ezkontzetan jotzen duen musika taldeak gitarrarajolea behar du. Tel.: 79 96 56. Iban.

• Gazte talde batek ezkontzatan abestuko luke. Oso merke. Tel.: 79 79 85.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Kimikan lizentziaduna taldeka klase partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 42 97.

• Titulodun irakaslea LH eta DHBH-ko klase partikularrek emango litzuzke. Tel.: 79 94 04. Marijo.

• EGB, REM, eta ingeleseko klase partikularrek emango nitzuzke. Tel.: 79 55 11.

21. Etsakerak

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

- Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo gauez. Tel.: 79 55 04.

- Zergatan aditua den laguna behar da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.

MOTORRA

23. Saldu

- Egoera onean dagoen Ford Fiesta salgai. Tel.: 79 00 53. Olga.

- Fiat Regata autoa salgai. Egoera onean dago. Prezioa: 350.000 pta. Tel.: 79 25 19.

- Suzuki RF-50 motorra salgai. Tel.: 79 62 50. Ander.

- Lada Niva kotxea salgai. Tel.: 79 66 52.

- BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

- Peugeot 205 TD salgai, SS-AM. ITVa 99ra arte pasatuta. Prezio interesgarria. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

- Renault 11 TXE salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

- Vespa 200 motorra salgai. VI-I. Tel.: 76 08 51.

- Yamaha Virago 1.100 motorra salgai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000 pta. Tel.: 79 61 89.

DENETARIK

26. Saldu

- Hammer markako snowboard tabla salgai. 1,38 m. Prezioa: 20.000 pta. Tel.: 79 33 58.

- Dynaster skiak (1,85 m.), eta Marker fijazioak salgai. Prezioa: 18.000 pta. Tel.: 79 33 58.

- Cort Luxe gitarra elektriko gehi Zoom 900-S efektu prozesatzailea: Biak, 100.000 pta. Suelto erostekotan: 55.000 pta. bakoitzak. Tel.: 79 16 36. Txus edo Toño.

- Boss Me-5 peldala 45.000 pta. Tel.: 79 95 83. Josu.

- Peavey Combo baxu anplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.:

79 16 36. Toño.

- Portaeski eta kotxe gainean jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

- Ingalaterrara bidaiar 170.000 pta.tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

- Cibro markako berogailua eta Fagor markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez.

- Soprani markako soinua daukat saltzeko. Tel.: 79 82 06.

- Butaka relax salgai. Tel: 79 22 92.

- Zapatak konpontzeko aintzinako makina salgai. 100.000 pta. Tel.: 79 81 70 / 71 50 72.

- Aluminiozko bizikleta salgai. XT piezak ditu. 50.000 pta. Tel.: 79 70 96. Felix.

27. Erosi

- Bigarren eskuko seaska bat egoera onean erosiko nuke. Tel: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

- Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

32. Aurkitu

- Joan den igandean Zaldibarren mendiko bizikleta ahaztuta utzi bazenuen deitu Ertzantzara edo Udaltzaingora.

HARREMANAK

34. Agurrak

- Gasteizen erizaintza ikasten ari den Arrasateko Eiderri gorantziak Gasteizko Iratxeren partez.

36. Galdu

- Martxoaren 14ean betaurreko graduatu batzuk galdu nituen Iturripen. Aurkitu badituzu utzi mesedez Ari-mazuriko Bolintxon.

37. Denetarik

- Astelehenetik ostiralera Leioara joan behar dut eguerdiko 3etarako eta 8etan bueltatzeko. Nirekin kotxean joateko interesaturik bazaude dei egin 79 48 83 telefonora, gastuak erdibana egingo ditugu.

NISSAN kamioien gama.

ECO-T.100



Trade




ALDIBI AUTOAK, S.A.
ZIGORROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20.500 ARRASATE



Igor Altuna

JMAKO MARKETING ETA PUBLIZITATE ARDURADUNA



1 966ko apirilaren lehen egunean jaio zen Arrasaten. Maestria ikasi zuen hemen eta gero lau urte pasa zituen Milanen diseinua ikasten. Ezkonduta dago eta ez du seme-alabarik. Txato deitzen diote.

- 1. Zein da zure horoskopoa? Aries.
- 2. Sinestuna zara? Bai.

3. Animalia bihurtzekotan? Lehoia.

4. Zure akats bat/gauza on bat?

Genio txarra/Eskuzabaltasuna.

5. Zerk lotsarazten zaitu?

Dantza egiteak.

6. Amets bat? Euskal

Herriaren independentzia.

7. Zer kenduko zenuke

mundutik? Gerrak eta pobrezia.

8. Gertakizun historiko

bat? Sudafrikko apartheidaren amaiera.

9. Nor miresten duzu?

Dena utzi eta laguntzera joaten diren horiek.

10. Zeri diozu beldurra? Euskal Herriaren egoerari.

11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?

Orain hilabete batzuk, lagun bat hil zenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri?

Garbitasuna.

14. Eta zuri? Denbora.

15. Lanbidez aldatzekotan? Telebistan dokumentalak egingo nituzke.

16. Arrasateko gustoko toki bat?

Zaldibar.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Etxeko lan batzuk.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Egin eta DV.

19. Gustoko janari bat? Ostrak.

20. Liburu on bat? *El Señor de los anillos*.

21. Filmerik onena/txarrena? Blade Runer/Asko daude.

22. Musika talderik onena/txarrena? Peter Gabriel/Asko daude.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? Dokumentalak/Lo que necesitas es amor.

24. Egin dizuten oparirik politena? Poesia bat eta argazki bat.

25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Lagunekin.

26. Oporretarako toki bat? Botswana.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa egitea.

28. Gomendio bat? Berba gehiago egin behar da gauzak aurrera ateratzeko.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiagatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Emaztearekin bidaia on bat egin eta enpresa txiki bat sortuko nuke.

BEGIRALE LANA GUSTOKO DUZULA? ZATOZ UZTAILEAN TXATXILIPURDIKO UDALEKUTARA.

BETE BEHARRAK

- 18 urte beteak izatea.
- Euskara ongi menperatzea.
- Haur eta gaztetoekin harremanak izateko gaitasuna.

EKARRI BEHARREKOAK

- Kurrikuluma.
- Argazki bat.
- NAN-aren fotokopia.

INFORMAZIOA

- Txatxilipurdi elkarte.
- Pablo Uranga 4, behea.
- Tel.: 79 54 46

IZEN EMATEA

- Apirilak 18a baino lehen.



AUKERAKO PEUGEOT AUTOAK



Zaldisp,2 • ARRASATE • Tel.: 79 50 71 - 79 97 12

**MARTXOAREN
21etik 28ra
AUKERAKO AUTOEN
FERIA HANDIA!**

FIESTA L	79 urtekoa	75.000 pta.	205 LACOSTE	86 urtekoa	475.000 pta.	R-21 GTD	92 urtekoa	1.200.000 pta.
R-9 TSE	82 urtekoa	80.000 pta.	SIERRA 2.0 3P	86 urtekoa	500.000 pta.	106 KTD 1.1	96 urtekoa	1.200.000 pta.
HORIZON 1.5 GL	82 urtekoa	135.000 pta.	CORSA GT	90 urtekoa	550.000 pta.	106 XR 1.1 3P	96 urtekoa	1.275.000 pta.
FIESTA SPORT	81 urtekoa	150.000 pta.	C-15 GASOLINA	88 urtekoa	550.000 pta.	PASSAT 1.8	92 urtekoa	1.290.000 pta.
ESCORT XR3	82 urtekoa	150.000 pta.	ROVER 216 SE i	89 urtekoa	550.000 pta.	OMEGA 2.0	90 urtekoa	1.300.000 pta.
ESCORT 1.3	82 urtekoa	180.000 pta.	IBIZA 1.5 D	90 urtekoa	575.000 pta.	KA 1.3	96 urtekoa	1.325.000 pta.
CORSA 1.0	84 urtekoa	225.000 pta.	33 1.5 A.A.	91 urtekoa	595.000 pta.	106 XN 1.1 3P	97 urtekoa	1.350.000 pta.
HORIZON GLD	84 urtekoa	225.000 pta.	CROMA 2.5 TD	88 urtekoa	650.000 pta.	FIESTA STU. 16v	96 urtekoa	1.375.000 pta.
FIESTA 1.1	89 urtekoa	250.000 pta.	UNO 70 SX	90 urtekoa	675.000 pta.	FIESTA STU. 1.3	96 urtekoa	1.400.000 pta.
PASSAT CL 1.8	85 urtekoa	250.000 pta.	ORION 1.6 D	88 urtekoa	675.000 pta.	FIESTA STU. 16v	96 urtekoa	1.425.000 pta.
R-11 GTL	86 urtekoa	275.000 pta.	ESCORT RS T	88 urtekoa	675.000 pta.	205 D 5P	97 urtekoa	1.450.000 pta.
IBIZA 1.5	87 urtekoa	275.000 pta.	R-21 TXE	87 urtekoa	700.000 pta.	FIESTA TEC. 1.2	95 urtekoa	1.475.000 pta.
R-11 GTL	84 urtekoa	275.000 pta.	405 1.8 A.A.	88 urtekoa	725.000 pta.	TOLEDO TD GLX	92 urtekoa	1.475.000 pta.
ESPRESS D	87 urtekoa	300.000 pta.	R-21 TXE	89 urtekoa	750.000 pta.	ZX TD	93 urtekoa	1.475.000 pta.
MALAGA D	86 urtekoa	325.000 pta.	ORION 1.6	91 urtekoa	775.000 pta.	ZX TD	93 urtekoa	1.475.000 pta.
MALAGA 1.5 i	88 urtekoa	325.000 pta.	AUDI 80 1.8 E	87 urtekoa	800.000 pta.	405 SRDT A.A.	92 urtekoa	1.490.000 pta.
ORION 1.6 D	85 urtekoa	350.000 pta.	405 GR	89 urtekoa	825.000 pta.	205 D A.A. 5P	96 urtekoa	1.535.000 pta.
AX 11TRE	84 urtekoa	350.000 pta.	205 XTD	90 urtekoa	825.000 pta.	MONDEO CLX TD	93 urtekoa	1.700.000 pta.
ORION 1.6	86 urtekoa	375.000 pta.	ESCORT CLX 1.6	91 urtekoa	850.000 pta.	ESCORT CLX 1.4	96 urtekoa	1.725.000 pta.
IBIZA 1.2	88 urtekoa	375.000 pta.	AUDI 80 1.8 i E	87 urtekoa	875.000 pta.	MONDEO CLX TD	95 urtekoa	2.050.000 pta.
AX 1.4	87 urtekoa	400.000 pta.	ESCORT 1.8 D	91 urtekoa	925.000 pta.	ESCORT GHIA 1.6	96 urtekoa	2.075.000 pta.
UNO 70 SL 5P	87 urtekoa	400.000 pta.	106 KIT 3P	94 urtekoa	925.000 pta.	306 D 5P	96 urtekoa	2.100.000 pta.
R-11 GTD	85 urtekoa	425.000 pta.	DUCATO 1.9 TD	92 urtekoa	950.000 pta.	306 XSDT 3P	97 urtekoa	2.375.000 pta.
505 D	86 urtekoa	470.000 pta.	ORION GHIA	92 urtekoa	1.050.000 pta.	MONDEO GHIA 2.0	97 urtekoa	3.100.000 pta.
R-21 GTS	87 urtekoa	475.000 pta.	AUDI 80 1.6 TD	89 urtekoa	1.050.000 pta.	MONDEO GT V6	97 urtekoa	3.300.000 pta.

**Zapatuetan zabalik,
goizez eta arratsaldez!!**

ZURE PEUGEOT KONTSEZIONARIOA.


**LEHOIAREN
AUKERAK
PEUGEOT**



■ Horoskopoa

- **Aries** Zoragarria zara eta inguruko guztiek izugarri maite zaituzte.
- **Taurus** Begiak itxita guztia polita goa ikusten da.
- **Gemini** Arazoen aurrean nahastu egiten zara.
- **Cancer** Ez mikaztu bizitza, behin biziko zara eta.
- **Leo** Bihotzeko axukre koskorra barruko arropa batekin agertuko zaizu.
- **Virgo** Hemendik aurrera beltz ikusiko duzu mundua.
- **Libra** Orain arazoak baina laster guztia ona izango da.
- **Scorpio** Gizenduta zabilta. Kontuz, eta gutxiago jan.
- **Sagitaris** Zure sentimenduak biluztu nahian zabilta?
- **Capricorn** Berriz ere hamazortzi urte bazenitu...
- **Aquarius** Zure eguzkia nor den argi eta garbi dago.
- **Piscis** Begiradarekin ere gauza asko esan daiteke. Ez ahaztu.

■ Gurutzegrama




JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. "The Mith of Mondragon" liburuaren egilearen abizena. 8. Zerbaitek daraman lastertasun-indarra. 10. Logroñoko ibilgailuetan. 11. Gorputzaren organoa. 12. Zer baiten barruan sortzen dena. 14. Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua. 15. (Ald.) Otoiz-ordu txikietako azkena. 16. (Ald.) Imitatu aditzaren infinitiboa. 18. (Ald.) Multzoa adierazteko atzizkia. 19. Rutenioa. 20. Zoro.

Bertikalak 1. Klean, ez baserrian, bizi den pertsona. 2. Harpidedun. 3. Musika-eskalako zazpigarren nota. 4. Magia egiten duen pertsona. 5. Zezen gazte zikiratu. 6. Jakoben semerik zaharrena. 7. Garia ebaiki den saila. 9. Jean, zine-zuzendari frantsesa. 13. Behar adinekoa. 17. Abelgorrien hotsa.


Horizontalak: 1. Kasmitz, 8. Abiadura, 10. Lo, 11. Gibel, 12. Endogena, 14. TAO, 15. (Ald.) Nona, 16. (Ald.) Imita, 18. (Ald.) Di, 19. Ru, 20. Ero.
Bertikalak: 1. Kalerat, 2. Abonatu, 3. Si, 4. Mago, 5. Idigat, 6. Ruben, 7. Galondo, 9. Renoit, 13. Doi, 17. Mu.



weru
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
 BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
 Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
 ARRASATE



PVCko ate eta
 leihoez gain:
 Mocketak jartzea,
 zoru arinak,
 kortxoak,
 Louverdrape
 kortinak,
 Kortinoba, textila...

Aurrekontuak eta "Bentxes" in memorian gaur *Astebetean*

Patxi Monterok zuzentzen eta aurkezten duen Astebete saioan bi gai jorratuko dira gaur gaueko 9.30etan. Alde batetik arrasatearren dirua zertan gastatuko duen Udalak azaldu du Ino Galparso-rok, udal aurrekontuen nondik norakoak sakonki aztertuz. Bestalde, orain gutxi hil den Jose Mari "Bentxes" argazkizaleari buruzko erreportaia ere eskeiniko da.



Aste Santuko oporrak ATBn

Aste Santuko oporrak direla eta, Arrasate Telebistan ez da emisiorik izango martxoaren 27tik apirilaren 7ra arte.

Arrasateko txutxumutxuak asteazkenean *Nonzeberri*

Azkenaldian Arrasaten bertan jasotako txutxumutxuak ezagutu nahi dituzula? Ez, ez zaitetz alboko bizilagunarengana joan galdetzera... Arrasate Telebistan jasoko duzu horien guztien berri. 1951ko kintonek egin zuten afariko giroa, Play Back jaialdiko neska-mutilek egin zutenekoa, Kofradiako bazkideek guztiek elkarrekin egin zuten afaria... ez galdu asteazkenean 9.30etan *Nonzeberri* saioa!

Aste Santuko oporrak Arrasate Irratian

Martxoaren 27, 28, 29 eta apirilaren 1ean ez da irratsaioarik izango.

■ ATBko asteko programazioa

21 Ostirala	24 Astelehena	25 Asteartea	26 Asteazkena	27 Osteguna	28 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Lotsa Barik. (Errep.)	Ez da emisiorik egongo.	Ez da emisiorik egongo.
21.30 Astebete 97ko Udal aurrekontuen azterketa eta Jose Mari "Bentxes" in memorian	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak		
	21.30 Mondrasport	21.30 Lotsa Barik. Gonbidatua: Joxe Felipe Auzmendi.	21.30 Nonzeberri.		



LOGOPEDIA ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82



Azkenaldian amerikarrek protagonismo handia hartu dute saskibaloian. Ez pentsa, dena den, amerikarrena gaurko kontua denik. 1978. urterako Arrasateko saskibaloitzaletan bazeukan bere jokalarien artean amerikar

bat. Hor duzue argazkian, taldekideekin batera. Ezkerretik eskumara eta zutik: Agustin Garcia entrenatzailea, Jose Mari Balzategi, Jon Basurko, Herbert A. Jones, Jesus Mari Idigoras, Juanjo Zabarte eta Borge; makurkuta, Esteban Garai, Peio Balanzategi, Iñaki Gonzalez, Angel

Miguel ez eta Valentin Carrillo.

Gipuzkoa mailako senior kategorian jokatu zuen Arrasatek 1978-79 denboraldian. Herbert A. Jones amerikarra Oñatira etorria zen, erdara ikastera Oñatiko ETEOran, sasoi hartan amerikar askok egiten zuen moduan.

Urtea: 1978.

Argazkia: Jose Mari Balzategi.

Informazioa: Jose Mari Balzategi.



JAIME BENGOAren familiak eskerrik sentikorrenak eman nahi dizkizuegu zuen laguntza eskaini zeniguten guztioi.

Mila esker.


TOLDOS LECE C/B

Kataide Poligonoa, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxa: 77 04 45

Eguzkiaren indarrari gogor egiten dion marka sendoa gara.

Case Siamarket

San Andres auzoa
Tel.: 79 18 92



%30eko deskontua hainbat modelotan. (97-4-30era arte baliagarria)
Aprobetxa itzazu beherapen bereziak obrako sukaldetan.

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan:** ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamentako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.


BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 


TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.